

Zaborteziaren herri kontsulta



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Espainiako Gobernuak baimena eman zion Zaldibarreko alkateari 1998. urtean zaborteziari buruzko herri kontsulta burutzeko. Herri Batasunaren proposamena Grupo Independientek eta EAJko zinegotzi batek, Eitzaga auzokoa hain zuzen, proposamenaren alde emandako botoei esker aurrera atera zen. Hala ere, udaletxeak ez zuen aukera hori gauzatu. Orain hiru urte, orduko alkate ohiak Gure Esku Dagoren kontsultan parte hartzeko gonbitea luzatu zien herritarrei.

2003. urtean, EAJko beste alkate batek herriko arau subsidiarioak aldatu zituen zaborteziaren proiektuari bultzada emateko. Jaurlaritzako Ingurumen Sailak proiektua onartzeko behar zuen udal plangintzarekiko bateragarritasunak udaletxearen arkitektoaren oniritzia zuen, Eusko Legebiltzarreko lehendakaria izandakoaren semea berau. Alkatea bera, kargua utzi ondoren, arkitektoaren enpresa bateko ordezkaria bihurtu zen. 2011. urtean, Bildu alkatetzara heldu baino bi aste lehenago, zaborteziari jarduera-baimena eman zioten.

Zabortezi ingeniariaren osaba, EAJko diputatu ohi, gaur egun Indumetalen lehendakari dago. Indumetalen ikerketapean dago egun, birziklapenean burututako irregulartasunak medio. Ingegniariaren aita Luzaroko lehendakaria izan zen, Jaurlaritzak parte-hartzea duen erakunde honek zaborteziari eta Indu-

metali makina euro mailegatu dizkie.

Kakatzat honetan PSEk ere badu bere txokoa. Jaurlaritzako Ingurumen sailburuak, Eibarreko alkate ohi zela, zaborteziaren arduraduna ezagutu zuen, eta haren hainbat enpresa udaletxeak bultzatu edo onartutako zenbait proiektutan murgildu ziren, horietako batzuk nahiko eztabaidatsuek. Alkate zenaren idazkariak zaborteziaren ordezkari lanak ere egiten zituen.

URA Agentziako zuzendaria zaborteziaren arduradunaren enpresa baten lehendakaria da, eta SPRIko zuzendari orde ohi batek zaborteziako akzioedunekin harreman sozietarioak izan ditu. Zaborteziako ordezkari ohi batek eta zaborteziako kudeatzaileak sortutako enpresa baten lehendakaria izan zena Gipuzkoako Ingurumen zuzendaria da orain.

Zirkuluaren koadratura bukatzeko, Gipuzkoako Ingurumen zuzendariaren anaia, enpresa pribatu bateko ingurumen saileko zuzendari ohi, Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren zuzendaria da. Enpresa horren sortzailea beste enpresa bateko lehendakariordea izan zen. Azken honetan Zaldibarreko alkate ohi ordezkari izendatu zuten eta udaletxeko arkitekto ohi lehendakari izan zuten.

Euskal oasiaren ate birakariak komuneko ur-zurrusta kulunkarien gisakoak dira, mataza horren haritik tiraka jarraituko dugu. ●

Distiraz



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Hainbeste egun eta gau pasatuko ditugu konfinaturik, oraindik ere bai, pantailaren aitzinean baliogabeko orrialdeak miatzatzen, lur gaizo hau diruaz zipiritintzen duten izarren automobilak zein diren eta zenbat balio duten agertzen dizkigutenak adibidez: Celine Dion, Zidane, Rihanna eta Beyoncere nek gure etxearen zazpi adina balio dute dolarretan. Guzti hori, hirietan, orduko 50 edo 30 kilometrotan ibiltzeko! Bazazu?

Aburu zenbaiten arabera munduan zehar dirua eskas liteke jendearen ongizate orokorra bermatzeko. Pobreak, egiazko putzuak dira, sos meta eroa

irensten dute, benefizio net izpirik gabe. Irri egitekoa baliteke, ez balitz negargarria. Bizkitartean aberatsenen irudiekin ausatzen gaituzte, palazioak, luxuzko ontziak edo beribilak erakutsiz. Handiki neoliberalak pentsatzen dute kontsumoa eta ekoizpena, hots bizitza, segurtatzea, herritar arruntengan frustrazioa atitxatuz. Funtzionatzen duela ezin uka.

Badabil dirua, ausarki, kirolari eta artista andan Ferrari eta Mercedes distiratsuek zehazten ditugunean, baina ez da egokiro isurtzen piramidean behera: arazoa horretan datza.

Milton Friedmanen sinestea ustela zen. ●